

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2010EKO IRAILA

Bidaiarien sarrerak %12 gehitu ziren Euskal AEn 2010eko irailean

Uztailean, abuztuan eta irailean 88.000 bidaiari-sarrera gehiago erregistratu ziren 2009ko aldi berean baino, %14ko hazkundera

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: 2010eko irailean, 214.732 erregistratu ziren, aurreko urteko hil berean baino 22.829 sarrera gehiago, %12ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %26 igo ziren Araban, %17 Bizkaian eta %2 Gipuzkoan.

Estatutiko bidaiarien sarrerek %8ko igoera izan dute eta atzeritik etorritakoenek %20koa. Estatutiko bidaiariak %18 gehiago izan dira Araban, %14 gehiago Bizkaian eta %3 gutxiago Gipuzkoan. Hiru lurraldeetara etorri da atzeritar gehiago: Arabara %48, Bizkaia %22 eta Gipuzkoara %10 gehiago.

Estatutiko bidaiarien artean gehien bat hazi dira Madril, Valentzia, Aragoi, Balear uharte eta Asturiastik etorritakoak; eta gutxitu Extremadura, Kantabria, Nafarroa eta Euskal AEtik beretik etorritakoak. Atzeritarren artean denetikoak ugaritu dira, Finlandia eta Japoniatik etorritakoak izan ezik. Iberoamerika, Erresuma Batu eta Alemaniatik etorritakoak hazi dira gehien ehunekoetan.

2010eko irailean erregistraturiko gaualdiak 414.777 dira, hau da, iazkoaren aldean %15eko igoera, 55.052 gaualdi gehiago. Gaualdiek urte batetik bestera bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %41, Bizkaian %22 eta Gipuzkoan %2.

Batezbesteko egonaldiaren iraupena igo egin da 2009ko irailaren aldean, 1,87 egunetik 1,93ra, Euskal AEn. Araban 1,68tik 1,88ra; Bizkaian 1,77tik 1,85era; Gipuzkoan lehengo urtean bezalaxe, 2,05 egun.

Plazakako betetze-maila %9 hazi da, %52,18 izan da 2010eko irailean Euskal AE osoan. Araban betetze-maila 2009ko iraileko %38,85etik aurtengo %48,05era igo da, %24 gehiago; Bizkaian %43,13tik %49,28ra, %14 gehiago. Gipuzkoan pittin bat jaitsi da, lehengo urteko iraileko %58,11tik aurtengo %57,90.

Uztailean, abuztuan, eta irailean Euskal AEn, %14 gehitu ziren bidaiarien sarrerak 2009ko udaren aldean; 88.000 sarrera inguru gehiago. Hiru herrialdeetan gehitu ziren: Araban %34 igo, Bizkaian %13 eta Gipuzkoan %8. Gaualdiak %14 igo dira aldi berean. Araban %35, Bizkaian %16 eta Gipuzkoan %6. Batezbesteko egonaldia ez da aldatu (%0), 2 egunetan da, eta betetze-maila %58,58 izan da azken hiru hiletan, aurreko urteko aldi berean baino %8 gehiago.

NEKAZALTURISMOA

Sarrerak %9 eta gaualdiak %8 igo dira Euskal AEn, 2009ko irailaren aldean

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Lehengo irailean 10.991 erregistratu ziren, 2009ko irailean baino %9 gehiago. Araban %27 hazkundera, Gipuzkoan %9koa, eta Bizkaian %1eko murrizketa. Estatutiko bidaiariak %11 ugaritu ziren Euskal AEn: %24 Araban, %11 Gipuzkoan eta %2 Bizkaian. Euskal AEn %8 atzeritar gutxiago izan da: Gipuzkoan eta Bizkaian dezente murriztu dira; Araban (ehunekoak aintzat hartuta) nabarmen egin dute gora.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 29.012 izan dira irailean, 2009ko hil berean baino %8 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan ziren herrialde guztietan: Araban %44, Bizkaian %4 eta Gipuzkoan %1.

Bidaiariko batez besteko egonaldia urritu egin da zertxobait Euskal AE osoan, 2009ko irailaren aldean: duela urtebete 2,66 egun; aurtengoan 2,64. Araban eta Bizkaian %13 eta %5eko igoerak izan dira; Araban 2009ko iraileko 2,08 egunetik aurtengo 2,36ra eta Bizkaian 2,57tik 2,71ra. Gipuzkoan %7 jaitsi da batezbesteko egonaldia, 2009ko iraileko 2,90 egunetik aurtengo 2,70era.

Plazakako betetze-maila %1 hazi da, %24,27tik %24,52ra; Araban (%26) eta Bizkaian (%1) izandako igoeren ondorioz; Gipuzkoan %4 jaitsi da.

2010eko uztailean, abuztuan eta irailean, nekazalturismoetan, bidaiari-sarrerak %8 hazi dira; gaualdiek %10eko igoera izan zuten aldi berean; Araban %29 igo dira eta Gipuzkoan %12; Bizkaian (%0) aldaketarik ez.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	09 2010	(%)	09 2009	(%)	Δ %	09 2010	(%)	09 2009	(%)	Δ %	09 2010	(%)	09 2009	(%)	Δ %	09 2010	(%)	09 2009	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	414.777	100	359.725	100	15	63.957	100	45.347	100	41	184.906	100	151.162	100	22	165.914	100	163.216	100	2
Estatukoak	265.156	64	237.627	66	12	42.595	67	32.943	73	29	115.601	63	95.159	63	21	106.960	64	109.525	67	-2
Atzerrikoak	149.621	36	122.098	34	23	21.362	33	12.404	27	72	69.305	37	56.003	37	24	58.954	36	53.691	33	10
Hiriburua	261.474	63	215.256	60	21	44.588	70	29.899	66	49	124.833	68	96.771	64	29	92.053	55	88.586	54	4
Litoral	49.515	12	48.851	14	1	-	-	-	-	-	15.537	8	15.367	10	1	33.978	20	33.484	21	1
Barnealdea	103.788	25	95.618	27	9	19.369	30	15.448	34	25	44.536	24	39.024	26	14	39.883	24	41.146	25	-3
BIDAIARIEN SARRERAK	214.732	100	191.903	100	12	33.954	100	26.915	100	26	99.856	100	85.520	100	17	80.922	100	79.468	100	2
Estatukoak	137.762	64	127.674	67	8	23.230	68	19.682	73	18	64.478	65	56.494	66	14	50.054	62	51.498	65	-3
Atzerrikoak	76.970	36	64.229	33	20	10.724	32	7.233	27	48	35.378	35	29.026	34	22	30.868	38	27.970	35	10
Hiriburua	132.085	62	113.381	59	16	22.002	65	16.827	63	31	65.771	66	53.713	63	22	44.312	55	42.841	54	3
Litoral	23.688	11	23.861	12	-1	-	-	-	-	-	8.642	9	8.548	10	1	15.046	19	15.313	19	-2
Barnealdea	58.959	27	54.661	28	8	11.952	35	10.088	37	18	25.443	25	23.259	27	9	21.564	27	21.314	27	1
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,93		1,87		3	1,88		1,68		12	1,85		1,77		5	2,05		2,05		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	52,18		48,08		9	48,05		38,85		24	49,28		43,13		14	57,90		58,11		0
Hiriburua	59,82		52,50		14	48,87		39,71		23	58,92		47,97		23	68,69		66,61		3
Litoral	55,72		54,66		2	-		-		-	41,37		41,31		0	66,23		64,18		3
Barnealdea	38,60		38,44		0	46,25		37,29		24	35,41		34,98		1	39,39		42,98		-8
BETETZE-MAILA GELAKA	62,06		57,47		8	58,81		46,77		26	60,63		54,24		12	65,38		66,54		-2
Hiriburua	72,10		63,55		13	61,98		49,90		24	72,30		60,55		19	79,04		77,24		2
Litoral	62,10		60,98		2	-		-		-	48,10		47,96		0	71,52		69,76		3
Barnealdea	44,73		46,26		-3	48,35		40,70		19	43,79		44,74		-2	44,87		50,57		-11
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	29.012	100	26.973	100	8	4.937	100	3.435	100	44	8.501	100	8.170	100	4	15.574	100	15.368	100	1
Estatukoak	25.226	87	23.244	86	9	4.303	87	3.117	91	38	7.226	85	6.381	78	13	13.697	88	13.746	89	0
Atzerrikoak	3.786	13	3.729	14	2	634	13	318	9	99	1.275	15	1.789	22	-29	1.877	12	1.622	11	16
BIDAIARIEN SARRERAK	10.991	100	10.122	100	9	2.092	100	1.650	100	27	3.137	100	3.179	100	-1	5.762	100	5.293	100	9
Estatukoak	9.859	90	8.895	88	11	1.922	92	1.546	94	24	2.686	86	2.631	83	2	5.251	91	4.718	89	11
Atzerrikoak	1.132	10	1.227	12	-8	170	8	104	6	63	451	14	548	17	-18	511	9	575	11	-11
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,64		2,66		-1	2,36		2,08		13	2,71		2,57		5	2,70		2,90		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	24,52		24,27		1	19,76		15,68		26	21,98		21,75		1	28,49		29,73		-4
BETETZE-MAILA GELAKA	26,88		25,84		4	21,50		16,74		28	24,51		23,06		6	31,12		31,79		-2

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua